



EZKIO-ITSASOKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN **LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO** **PONENTZIAREN ALDAKETA**

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo udalak eskatuta, betiere hiri antolaketak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hiri antolaketan; gainera, lurzorua izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiarengatik, udalerrri honetako ondasun higiezin hiritarren lurzorua eta eraikinen balio ponentzia aldatuko da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

1.- Udalerriko hiri antolaketan aldaketa hau egin da:

- **Ezkio-Itsasoko Hiri Antolaketako Arauen berrikuspena** (Diputatu Kontseiluak behin betiko onartua 2006ko maiatzaren 25ean, eta GAOn argitaratua 2006ko maiatzaren 25ean).



EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

1.- Lurzoru hiritarraren mugaketa eta 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 800, 801 eta 802 zona katastralen mugaketa aldatu dira; 803 zona katastrala deuseztatu da, eta etxebizitzarako 601 zona katastrala eta 851 eta 852 zona katastral industrialak sortu dira.

2.- Balio hauek eman zaizkie zona katastral berriei:

Zona Eraikuntza kostua (EK) Eragin erresid. balioa (BEE)

601	HIRITARGAIA	480,81 €	215,73 €	7.212,15 €
-----	-------------	----------	----------	------------

Zona Hirig. sailkapena Eragin ind. balioa (BEI) Aparkam. mod. (MP)

851	HIRITARGAIA	180,30 €	5.409,11 €
-----	-------------	----------	------------

852	HIRITARGAIA	180,30 €	5.409,11 €
-----	-------------	----------	------------

3.- A azpizona katastrala etxebizitzatarako 601 zona katastraleko kaleei edota kale tarteei esleitu zaie.

I. ERANSKINA

Lurzoru hiritarraren mugaketa planoak

II. ERANSKINA

Zona katastralen planoak